



J. Back Bertranden [argazkia](#)

## Testuak egokitzeko maletina<sup>1</sup>

Testuak egokitzen hasi orduko, kontuan hartu:

- Ea oinarrizko edukiak garatzeko balio digun.
- Ea arloko helburuekin bat datorren.
- Ea testu-liburuak eskaintzen digun testuaren maila ikaslearentzat egokia den.
- Testua errazteak ez duela esan nahi edukien maila jaitsi behar denik.
- Laburtzea ez dela testua erraztea, berez.
- Ikasleak testua ulertzeko aurreko ezagupenak finkatuta izan behar dituela: irakasleak testuingurua eman behar diola ikasleari.

### A. Estrategia paratestualak, itxurarekin zerikusia daukatena: Tipografia eta irudia

- Argazkiak, irudiak
- Azpimarratu edo nabarmendu, koloreak erabiliz
- Letra-estiloak eta tamainaz jokatu
- Cliparta



Lehendik dakiguna



Berria



Oso garrantzitsua



Taldeka lan egin

- Oharrak jarri alboetan
- Definizioak nabarmendu
- Markoak erabili

### **Zertaz ohartu zara?**

- ✓ Ernalketa obulua eta espermatozoidea batzea da.
- ✓ Haurdunaldian, fetua amaren sabelean garatzen da; hain zuzen, umetokian.
- ✓ Erditzean, haurtxoa **baginatik** ateratzen da kanpora.

- Antolatzaile grafikoak erabili informazioa eskeintzeko:
  - aurkibideak,
  - kontzeptu mapak,
  - denbora lerroak

## **B. Egiturari dagozkion estrategiak**

- Unitatearen egitura finkoa erabiltzea:
  - hasierako galderak → hasierako irudiak → azalpen testua → testuari buruzko galderak → ariketak.
  - metodo zientifikoarena: egoeraren azalpena → hipotesi galderak → informazioa eskuratzea → esperientzia → ondorioak atera eta azaldu → aplikatu
- Testu generoen egitura identifikatzea: komikia, ipuina, azalpenak, errezeta.
- Testu antolatzaileak (konektore, juntagailuak) erabiltzea: denbora, lekua, kausa → ondorio
- Izenburuak, tituluak, azpitituluak erabiltzea, edukiera antolatzeko.
- Idea bat → paragrafo bat egitura zaintzea.

## **C. Estrategia linguistikoak**

- Esaldi laburrak eta sinpleak erabili, ahal dela, menpekoak ekidin. Koherentzia zaindu esaldien artean. Hitzak ondo lotu (kohesioa).
- Hiztegiari garrantzia handia eman\*\*
  - Hitz ezezagunak testuan bertan azaldu (azpian, alboan, irudiekin...).
  - Ama hizkuntza erabili argitzeko

Hizkuntza mailaren arabera

- Elipsirik ez egin, subjektua aipatu
- Izenordainak ez erabili, izena bera baizik

- Esaldi zuzenak erabili: lanaren astunak eta bakardadeak nekea eta haserrea eragiten dizkit → lana astuna da eta bakarrik egiten dudanez, nekatu eta haserretu egiten naiz.
- Erlatibozko esaldiak birmoldatu: Proteina asko duteN janariak oso onak dira hagineta rako → janari batzuk proteina asko dute ETA oso onak dira hagineta rako.

#### D. Orokorrak

- Benetako materialak: gidak, publizitatea, harriak, jatekoa...
- Testuak grabatu

---

1 Iturriak

*Idatzizko testuak errazten*. Durango: Durangoko Berritzegunea. Kulturarteko Hezkuntzarako Proposamenak, 2003.

Echevarria, Jana, Mary Ellen Vogt, and Deborah J. Short. *Making content comprehensible for secondary English learners: the SIOP model*. 2nd ed. Boston: Pearson Allyn and Bacon, 2010.

Bentley, Kay. *The TKT (teaching knowledge test) course: CLIL, Content and language integrated learning module*. Cambridge: New York, 2010.